

Lehen Mailako
Arretako gida

Pediatria

euskaraz



Osakidetza



OSASUN ETAILONTZIA
SALA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

EDIZIOA	2012ko otsaila
ALE KOPURUA	1.500
ARGITARATZAILEA	Osakidetza
EGILEAK	Osakidetzaren Euskara Zerbitzua Elhuyar Aholkularitza
DISEINUA	Síntesis
INPRIMATZAILEA	Irudi
L.G.	XXXXXXXX

Agurra

Euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora azken hamarkada hauetan. Euskararen erabilerak ere gora egin du; ez, ordea, ezagutzaren neurri berean. Ezagutza eta erabilera ez dira gauza bera. Erabilerak nekez egingo du aurrera zerbitzuen eskaintza zabaldu ezean, eta baldintza horrek, euskal gizarte osoari bezala, Osakidetza ere bete-betean eragiten dio. Hizkuntza-ohiturak aldatzea, baina, ez da erraza.

Hausnarketa hori bat dator Osakidetzaren Euskara Planaren lehenengo hirurtekoari buruzko (2005-2008) ebaluazio-txostenean jasotako ondorioekin. Euskaraz jakinda ere, hizkuntza-eskakizuna gaindituta ere, sarritan erdaraz erantzuten zaio paziente edo erabiltzaileari. Zergatik? Arrazoi asko egon litezke tartean, hala nola, osasunari buruzko hiztegia ondo ez ezagutzea, ohiko elkarrizketak aurrera eramateko segurtasun falta, dokumenturen bat betetzerakoan okerren bat egiteko beldurra...

Gida honek gabezia horiek gainditzeko laguntza ematea du helburu; zalantzaren bat, galderaren bat edo hutsuneren bat dagoenean laguntza eskaintzea. Beraz, eskura edukitzea komeni da beti. Lehen Mailako Arretan hasi gara, eta hiru liburuxka osatu ditugu guztira: Pediatriakoa, Harrerakoa eta Medikuntza Orokorrekoa, baina gehiago ere etorriko dira aurrerantzean.

Osakidetzaren Euskara Zerbitzutik jasotako irizpideei jarraiki, Elhuyar Aholkularitzak hartu ditu sortze-lanak bere gain, eta, langintza horretan, Lehen Mailako Arretako hainbat profesionalen ezinbesteko laguntza izan du. Eskerrak eman nahi dizkiegu batzuei eta besteei, baita zeuri ere, lankide, gidaliburu hau esku artean hartu duzulako.

Osakidetzaren Euskara Zerbitzua

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau gauzatzen lagundu duten Osakidetzako langile guztiei. Bereziki, materiala egiten hasi aurretik elkarriketatu genituen Pediatriako erizain eta medikuei, beraien laguntza eta ahaleginik gabe ezingo genuen-eta material hau osatu.

Txabi Txakartegi	Gernikako Anbulatorioko pediatria
Txema Arginzoniz	Iurretako Kontsultategiko pediatria
Yolanda Landazabal	Bermeoko Osasun Zentroko haur-erizaina
Gontzal Martinez de la Hidalga	Abusuko Osasun Zentroko pediatria
Ruben Garcia Perez	Txurdinagako Osasun Zentroko pediatria
Miren Arantza Bermeosolo	Deustuko Anbulatorioko haur-erizaina



HELBURUAK

Osakidetzako euskararen erabileraren normalizazioa arautzen duen 67/2003 Dekretuak ezarri zuenez, Lehen Mailako Pediatría zerbitzuak elebidunak izan behar dira bai %45etik gorako euskaldunen portzentajea duten udalerrietan bai 30.000 biztanle baino gehiagokoetan.

Halaber, euskaldunen portzentajea %45etik beherakoa duten lekuetan arian-arian hasi behar da Pediatría zerbitzu elebiduna eskaintzen.

ERABILERA-IRIZPIDEAK**ERAKUNDEAREN IDENTITATEA**

Osakidetzaren irudi korporatiboa adierazten duten testu eta elementu grafikoak, euskarria edozein izan arren (logotipoak, idazpuruak, zigiluak, inprimakiak, liburuxkak, kartelak, zentroen izenak, errotuluak, etab.) ele bitan egon behar dira.

Goian adierazten diren elementu horietako bat ele bitan ez dagoela ikusten baldin bada, unitateko arduradunari jakinaraziko zaio eta berak dagokion arduradunari.

ZERBITZU-HIZKUNTZA**➔ IDENTIFIKAZIO GRAFIKOA**

Komenigarria da zerbitzu elebiduna eskaintzen duen langilea identifikatzea, pin edo mahai gainekoaren bitartez.

➔ AHOZKO JARDUERA**Atentzio zuzena:****Hasierako agurra euskaraz bakarrik****1.- Langile elebiduna:**

(Bezeroaren aukera linguistikoa ezaguna bada, bezeroari berak aukeratutako hizkuntzan hitz egingo zaio).

Bezeroaren aukera linguistikoa ez bada ezaguna, agurrak eta sarrera-hitzak euskaraz bakarrik erabil daitezke, bezeroari euskara aukeratzea errazteko.

Adibidez: Egun on, zer nahi duzu?

2.- Langile elebakarra:

Bezero batek euskaraz egiten badio ez dakien langile bati:

A- Unitatean bezeroa euskaraz artatzeko norbait badago:

Langileak euskaraz ez dakiela esango dio bezeroari (begirunez), eta beste langile batek artatuko duela esango dio.

B- Unitatean bezeroa euskaraz artatzeko inor ez badago:

Langileak euskaraz ez dakiela esango dio bezeroari (begirunez), eta ezin izango dutela euskaraz jardun. Bezeroak kexa aurkeztu nahi badu, non eta nola bideratu ere azalduko dio.

Telefonoa:

Hasierako agurra euskaraz bakarrik edo ele bitan

1.- Langile elebidunentzat:

Bezeroaren aukera linguistikoa ezagutzen ez denez, agurrak eta sarrera-hitzak euskaraz bakarrik erabil daitezke, bezeroari euskara aukeratzea errazteko.

Adibidez: Osakidetza, egun on. Zer nahi duzu?

2.- Langile elebakarra:

Agurrak euskaraz eta sarrera-hitzak gaztelaniaz erabil daitezke.

Adibidez: Osakidetza, egun on. ¿Qué desea?

Erantzungailua eta megafonia:

Agurrak euskaraz, eta mezua lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.

➔ **IDATZIZKO JARDUERA**

Bezero edo pazienteentzako edozein dokumentu ele bitan ez dagoela ikusten baldin bada, unitateko arduradunari jakinaraziko zaio.

1.- Langile elebidunentzat:

Agiri jakin bat bete baino lehen, bezeroari galdetu behar zaio zein hizkuntzatan nahi duen.

2.- Langile elebakarra:

Bezero batek agiria euskaraz betetzea nahi izanez gero, langileak ahozko egoeran bezala jokatu behar du.



Aurkibidea

1	ELKARRIZKETAK	7
1.1	Kortesiazo adierazpenak / Datu pertsonalak eskatzea	8
1.2	Txertaketak	10
1.3	Aldizkako kontrolak	11
1.4	Haurren ohiko gaixotasunak	15
1.5	Edoskitzea	21
1.6	Elikadura	22
1.7	Hainbat azalpen	25
2	OINARRIZKO HIZTEGIA	27
2.1	Zerbitzuak	28
2.2	Gaixotasunak (Nazioarteko sailkapenaren arabera)	29
2.3	Ohiko gaixotasunak	30
2.4	Gorputz-atalak	31
2.5	Gorputz-organoak	32
2.6	Eskeletoa	32
2.7	Probak, analisiak, ebakuntzak	33
2.8	Elikagaiak	34
3	HIZTEGI ESPEZIFIKOA	35
3.1	Laneko ohiko hiztegia	35
3.2	Gorputz-atalak	37
3.3	Gorputz-organoak	39
3.4	Eskeletoa	40
4	MATERIAL LAGUNGARRIA	41

1.- ELKARRIZKETAK

Gidari hasiera emateko, eta erabiliko duen pertsonari lagungarri izango zaiolakoan, euskararen erabilerarako Osakidetzaren irizpideak eta hainbat gomendio erantsi ditugu:

- Garrantzitsua da **lehen hitzak euskaraz** egitea: euskaldunari atea irekiko diogu euskaraz jarrai dezan.
- Saiatu **euskara hurbila** erabiltzen. Ahal baduzu egokitu hizkera solaskidearen arabera. Hizkera naturala eta ulerterraza erabili. Adibidez, solaskidearen euskalkia jakinez gero, euskalkia erabili.
- **Ez erabili hitanorik**, solaskidea hasi ezean behintzat.
- Solaskidearengandik **urrun** egonez gero, hurbildu berarengana.
- **Irribarreak** harremanak gozatzen eta errazten ditu.
- Medikuarengana joan dena zerbait jakitera, eskatzera, esatera joan da. Utzi azaltzen eta hitz egiten, aurreiritziak baztertu eta **entzun**.
- **Pazientzia izan**. Guretzat jakina eta erraza denak ez dauka zertan berdín izan guztientzat.
- **Ez itsutu zuzentasunarekin**. Esaldi bat erraz eta zuzen ulertzeak garrantzi handiagoa du gramatika-arau guztiak ondo betetzeak baino.
- Tarteka, **“lizentziaren bat”** hartzea hobe da dena gaztelaniaz egitea baino.
- **Erabili hitz ezagunak eta ulerterrazak**. Hiztegia ez dadila oztopo izan. Izan beti buruan pazientea, eta erabili hitz ezagunak, gertuenak.

1.1 Kortesiako adierazpenak / Datu pertsonalak eskatzea

Agurrak egiteko

Lehen agurra

- Kaixo.
- Egun on (goizean).
- Eguerdi on (eguerdian).
- Arratsalde on (arratsaldean).
- Gabon (gauean).

Lehen agurrari erantzuteko

- Berdin.
- Baita zuri ere.
- Bai, egun on (eguerdi on, arratsalde on edo gabon).

Amaierako agurrak

- Nahi duzun arte.
- Agur.
- Ondo da.
- Ondo segi.
- Hurrengo(ra) arte.
- Ikusi arte.
- Gero arte.

Ondo jarrai dezan opatzeko

- Ondo segi.
- Egun ona igaro.
- Ondo ibili.
- Ondo izan.

Eskerrak emateko eta erantzuteko formulak

- Eskerrik asko.
- Mila esker.
- Ez dago zergatik.
- Ez horregatik.



Datu pertsonalak eskatzeko

- Zein da zure izena?
- Nola/zelan duzu izena?
- Nor zara zu?
- Zu Asier zara, ezta?
- Badakit, zu Ane zara.
- Ane al da zure izena?
- Haurrak nola du izena? / Umeak zelan dauka izena?
- Nola du izena semeak/alabak?

Hona hemen datu pertsonalak eskatzeko fitxaren eredua:

Izena	Abizenak	Jaiotza-data	Jaioterria
Ane	Lizarribar Zubeldia	2006-12-20	Donostia
Sexua	Telefonia	Telefono mugikorra	Faxa
Gizonezkoa	944 236 545	666 566 661	944 236 544
Emakumezkoa			
Posta elektronikoa	Ikasketak	Adina	NAN
xaa@euskaltel.com	Haur Hezkuntza	5	223344999
Kalea	Zenbakia	Solairua	Aldea
Kale Nagusia	22	6.a	Eskuina
Posta kodea	Herria	Herrialdea	
22490	Donostia	Gipuzkoa	

1.2 Txertaketak

Erabiltzaileen ohiko galderak

- Zein gaitzetatik babesten du txertoak?
- Haurtzaindegian hasi behar duenez, Prevenar txertoa jartzea gomendatzen didazu?
- Barizelaren aurkako txertoa dagoela esan didate. Zer aholkatzen didazu?
- Ez dizkiot txerto guztiak jarri nahi. Zein dira zure ustez nahitaezkoak?
- Sukarrik ematen al du txerto horrek?



Jarraibideak

- Hilabete betetzen duenean, tuberkulosiaren aurkako txertoa jarriko diogu: BCG (Bacilo Calmette Guérin).
- Txertoa jarri eta 15 egunen buruan injekzio-puntuan nodulu bat agertu ohi da. Noduluak bizpahiru hilabete iraun dezake, eta ondoren orbaintxo bat uzten du.
- Txertoak batzuetan sukarra ematen duenez, Dalsy edo Apiretal errezetatuko dizut. Lehen 24 orduetan umea urduri edo arraro ikusten baduzu, emaitza Paracetamol edo Ibuprofenoa.
- Umeak bi hilabete betetzen dituzenean honako gaitzen kontrako txertoak jarriko dizkiogu: B Hepatitisa, Difteria, Tetanosa, kukurruku-eztula, Polioa, Haemophilusa eta Merintoa. Lau eta sei hilabete betetzen dituzenean ere beste dosi bana jarriko diogu.
- Hamabi hilabeterekin honako gaixotasunen kontrako txertoak jarriko dizkiogu: Elgorri, Errubeola, Meningo eta Parotidisaren kontrakoak.
- Hemezortzi hilabeterekin Difteria, Tetanos, kukurruku-eztul, Polio eta Haemophilusaren kontrako beste dosi bana jarriko diogu.

1.3 Aldizkako kontrolak

0 eta 6 hilabete arteko haurra/umea

Erabiltzaileen ohiko galderak

- Txupetea erabiltzea ona al da?
- Ipurdia gorri-gorri dauka. Zerbait emango didazu?
- Azkenaldian adurra dariola dago (lerde-jario handia dauka). Hortzengatik ote da?
- Iluntzeetan negar asko egiten du, ezin dut lasaitu.
- Umeari besoetan lo eragitea txarra da?

Haurra kontrolatzeko galderak

- Ondo egiten du lo? Zenbat ordu egiten du lo?
- Ondo jaten du?
- Txupeterik erabiltzen al du?
- Txertoa jartzea tokatzen zaio, ezta?

Jarraibideak

- Pisatu eta neurtu egingo dugu.
- Txupetea lurrera erortzen bazaio, garbitu ur eta xaboiarekin.
- Gogoratu: lo egiteko, umea ahoz gora jarri behar duzue beti, eta burua ezkerretara edo eskuinetara begira.
- Ez jantzi arropa gehiegi.
- Umea bainatu ondoren ondo lehortu/sikatu.
- Zilbor-hestea ondo lehortu beti, eta bere kabuz jausiko zaio.
- Haurra bainuontzira sartu aurretik begiratu uraren tenperatura. Urak 34-36 graduan egon behar du.
- Mokorra/aldaka nola daukan ikusteko proba egingo diogu.
- Azazkalak/atzazalak moztu, bestela arropetan katigatuko zaizkio.
- Kolikorik baldin badu, haurrari ondo heldu eta mugimendu goxo eta mantsoak egin.
- Egunero bainua hartzea garrantzitsua da, lasaitu egingo da-eta.
- Ipurdia babesteko krema babesgarriak erabil. Galdetu botikan.
- Haurra besoetan ez lokartzea gomendatzen dizut.
- Haurrarekin hitz egin, abestu, besoetan hartu...
- Lerde-jarioa normala da, laster hortzak irtengo zaizkio-eta.



7 eta 12 hilabete arteko haurra/umea

Erabiltzaileen ohiko galderak

- Haurra katuka/lau hankan ibiltzea komenigarria al da?
- Eguzkitatik babesteko ze kremak emango diot?
- Taka-takan ibiltzea komeni da?
- Barazkiak jatea asko kostatzen zaio.

Haurra kontrolatzeko galderak

- Eserita geratzen da?
- Katuka/lau hankan ibiltzen da?
- Ze barazki ematen dizkiozu?
- Eztarriko makilatxo bat ematea nahi duzu?

Jarraibideak

- Haurra ez da inoiz bakarrik utzi behar, ez aldatzeko mahaian ez leku altuetan.
- Ez utzi gauza txikiak ahora eramaten, irentsi egin ditzake-eta.
- Ez da komeni eskumuturrekoak, eraztunak eta lepokoak ipintzea.
- Haurra leku batetik bestera mugitzen hasten denean, ez da bakarrik utzi behar.
- Ez hartu haurra besoetan zu edari beroak edaten edo zigarroa erretzen ari zaren bitartean.
- Sukaldean kontuz ibili garbigarriekin, labearekin, berogailuekin, zartaginen kirtenekin...
- Entxufetan babesgarriak jarri.
- Ez utzi haurra eskaileretan bakarrik.
- Jaten ari den bitartean, ez utzi umea bakarrik.
- Gogoratu haurraren azala oso fina eta sentikorra dela. Eguzkitan, jarri bisera eta eman kremak.
- Kontuz jostailuekin; pieza guztiak izan daitezela haurraren ahoa baino handiagoak.
- Ez hartu botikarik haurraren aurrean, eta ez utzi berak hartzeko moduan.
- Komenigarria da etxeko alfonbrak kentzea eta altzarien ertzetan babesgarriak jartzea.
- Ez da gomendagarria taka-taka eta antzekoak erabiltzea.



1 eta 10 urte arteko haurra/umea

Erabiltzaileen ohiko galderak

- Oraindik ez dabil oinez eta ez dakit pixka bat behartu egin behar ote dudan.
- Asko kostatzen zaio jatea. Bitaminaren bat ematea pentsatu dut.
- Batzuetan ez duela ondo ikusten esan dit.

Haurra kontrolatzeko galderak

- Telebista sarri ikusten du?
- Katuka/lau hankan ibiltzen da?
- Jolasteko eta jateko gogorik ba al du?
- Otorduetatik kanpo zerbait jaten al du?

Jarraibideak

- Urtebeterekin, hortzetako eskuilarekin jolasten has daiteke, hortzak garbitzeko ohitura har dezan.
- Ez behartu oinez ibiltzera, bera hasiko da-eta.
- Kontuz eskailera, leiho eta balkoiekin. Saiatu babesten eta hesiak jartzen.
- Kirolen bat egitea komeni zaio.
- Bista begiratu behar diogu.
- Ikusmenaren proba egingo diogu.
- Ez ohitu telebista aurrean jaten.
- Kontuz ibili triziklo, bizikleta eta antzekoekin.
- Gaixo egon arren, jolasteko eta jateko gogoia baldin badu, lasai egon.



10 eta 14 urte artekoa

Erabiltzaileen ohiko galderak

- Asko kostatzen zaio jatea. Bitaminaren bat ematea pentsatu dut.
- Batzuetan ez duela ondo ikusten esan dit.
- Azkenaldian triste samar ikusten dut.

Haurra kontrolatzeko galderak

- Bistaren azterketa egingo dizugu. Itxi ezazu begi bat eta esadazu zer ikusten duzun.
- Alkoholik edaten duzu?
- Tabakorik erretzen duzu? Beste drogarik hartzen duzu?
- Kirolik egiten al duzu?
- Ondo entzuten duzu?
- Ondo ikusten duzu?
- Zer moduz eskolan? Zer gustatzen zaizu gehien?

Jarraibideak

- Hurrengo urtean berriro ere egingo diogu ikusmenaren azterketa.
- Kirol gehiago egitea komeni zaio.
- Saiatu jatorduetatik kanpo ezer ez jaten.
- Segi horrela.

1.4 Haurren ohiko gaixotasunak

Urdinez, pazienteen esaldi ereduak.
Grisez, mediku edo erizainenak.

1.- Arnasbideetakoak

Katarroa, eztarriko mina, belarriko mina eta buruko mina.

- Haurrak katarroa dauka.
- Eztarriko mina daukat.
- Haurrak belarriko mina daukala esan dit.
- 39º-ko sukarra dauka atzotik.
- Eztul egiten du sarri. Ez dakit ez ote daukan bularra hartuta.
- Haurrak atzo esan zigun ezin zuela arnasa ondo hartu. Asma izan daitekeela uste dut.



Zantzuak baieztatzeko galderak

- Eztul egiten du/duzu?
- Mukirik dauka/daukazu? Zer kolorekoak?
- Sukarrik dauka/daukazu?
- Zenbateko sukarra izan du/duzu?
- Noiztik dauka/daukazu sukarra?
- Eztarriko minik dauka/daukazu?
- Zerbait eman diozue sukarra jaisteko?
- Noiz izan du/duzu buruko mina?
- Zerbait hartu al du/duzu?
- Arnasesturik/itolarririk eduki al du/duzu?
- Txistu egiten al dio/dizu bularrak?
- Hotsen bat nabaritu al diozu arnasa hartzean?
- Gurasoetakoren bat asmatikoa al da?
- Bentolinik hartu al du inoiz?
- Tratamendurik izan al du aurretik?

Jarraibideak

- Eztul egin.
- Eztul egin berriro.
- Ireki/zabaltu ahoa.
- Orain auskultatu egingo zaitut.
- Erantzi/kendu arropa gerritik gora.
- Belarriak begiratuko dizkiot/dizkizut.
- Ea belarriak.
- Orain belarriak.
- Hartu arnasa sakon.
- Orain ez hartu arnasa(rik).

Tratamendua

- Bi aste beharko ditu/dituzu osatzeko.
- Ez diot/dizut tratamendurik jarriko.
- Tratamendu honekin hasiko da/zara.
- Mukiak ondo kendu behar ditu/dituzu.
- Emaiozu/hartu likido asko.
- Hobeto lo egiteko, bi burko ipini buruaren azpian.

2.- Sabelekoak:

Gastroenteritisa, tripako mina...

- Haurrak beherakoa eta gorakoa dauzka. Gastroenteritisa izan liteke?
- Atzo arratsaldetik tripako minez dago.
- Ez dakit zer gertatzen zaion, baina tripako mina duela dirudi.
- Hiru egun daramatza gastroenteritis sintomekin eta ez dakit zer eman.



Zantzuak baieztatzeko galderak

- Zenbat aldiz egin duzu oka? Eta kaka? Noiz izan da azken aldia?
- Noiztik dago/zaude horrela?
- Egarri zara?
- Tripako minik dauka/daukazu?
- Beste norbaitek badu etxean horrelako sintomarik?
- Noiz izaten duzu tripako mina?
- Tripako mina benetakoa al da?
- Gustatzen al zaio/zaizu ikastolara joatea?

Jarraibideak

- Auskultatu egingo zaitut.
- Erantzi arropa gerritik gora.
- Minik duzu hemen?
- Hartu arnasa sakon.
- Utzi sabela bigun, indarrik egin gabe.

Tratamendua

- Lehenengo egunean likidoz osatutako dieta bakarrik hartu behar du/duzu. Litro bat uretan limoi zukua gehitu, eta gatza, bikarbonatoa eta azukrea bota. Trago txikietan hartu behar du/duzu.
- Likido asko edan.
- Dieta lehorra egitea komeni zaio: banana, azenarioa, sagarra, arroza, oilaskoa, arrain egosia, xerra frijitua, Yorkeko urdaiazpikoa, irasagarra, tortilla frantsesa...
- Ez zaizu komeni esnea eta esnekiak, ogia eta gailetak hartzea.
- Jarraitu dieta lehorra ematen, 3 edo 5 egunean.
- Hitz egin ezazu irakaslearekin eta galdetu ea azkenaldian ikastolan zerbait gertatu zaion haurrari.

3.- Buruko mina:

- Azken astean buruko min handia izan du/dut.
- Buruko minarentzat zer emango diot?
- Buruko mina duela esaten dit.

Zantzuak baieztatzeko galderak

- Lehenago inoiz izan du/duzu horrelakorik?
- Noiz izaten du/duzu minik handiena?
- Ilunpetan hobeto egoten al da/zara?
- Zerbaitegatik kezkatuta dago/zaude?
- Lanez gainezka dabil/zabiltza?

Jarraibideak

- Burua ukituko dizut eta esadazu zer aldetan duzun min.
- Lepoa eta bizkarra begiratuko dizkiot/dizkizut.

Tratamendua

- Hasteko, tratamendu hau jarriko diot/dizut.

4.- Gernu-aparatukoak:

Zistitisa...

- Txiza/pixa egiten duenean mina izaten du.

Zantzuak baieztatzeko galderak

- Minik izan du/duzu aurretik?
- Minak okerrera egin du?

Jarraibideak

- Aztertu egingo dut/zaitut.
- Erantzi/kendu arropa.
- Erantziko diozu/duzu arropa, mesedez?
- Esaiozu arropa eranzteko, mesedez.

Tratamendua

- Botika honekin probatuko dugu.

5.- Azaleko gaixotasunak:

Dermatitisa...

- Azala gorrituta dauka hanken atzeko aldean. Krema bat eman diot, baina ez zaio sendatu.

Zantzuak baieztatzeko galderak

- Aurretik inoiz izan du/duzu holakorik?
- Okerrera egin duela nabaritzen duzu?
- Azkurarik du/duzu?
- Lo egiteko arazorik sortzen dizu?

Jarraibideak

- Bainu edo dutxa laburra hartu, 10 minutu baino luzeagorik ez. Irteerakoan ondo lehortu eta ondo hidratatu.
- Ez zaio/zaizu komeni igerilekura joatea.
- Xaboirik ez erabili.
- Saiatu hazka ez egiten.

Tratamendua

- Eman krema hau egunean bitan.

6.- Bihurdurak/herrentasunak:

- Hanka bihurritu du/dut eskaileretan.
- Ez dakit zer gertatu zaion, baina atzotik herrenka dabil.

Zantzuak baieztatzeko galderak

- Noiz egin du/duzu?
- Noiztik dago/zaude horrela?
- Kolperen bat hartu du/duzu?
- Nola egin du/duzu?
- Erori egin al da/zara?

Jarraibideak

- Esan non ematen dizun min.
- Erakutsi non daukazu mina.
- Ea zer ikusten duan.
- Noiz izaten duzu mina, goizean ala egun osoan?

Tratamendua

- Benda edo lotailua jarri. Mina kentzeko botika bat emango dizut.

7.- Kronikoak:

Hiperaktibitatea, obesitatea.

- Eskolan nahiko gaizki dabil ikasketetan eta medikuarenera etortzeko esan didate.
- Kosta egiten zaio geldirik egotea.
- Haurra loditu egin da eta dietaren bat jartzea nahi dut.



Zantzuak baieztatzeko galderak

- Orain hasi da ala lehen ere zerbait antzeman duzue?
- Arreta jartzea kosta egiten zaio?
- Eskolan arazorik izan du?
- Ondo jaten du?
- Ondo egiten du lo?
- Azkenaldian arazoren bat izan du/duzu?
- Ondo sentitzen al zara?
- Hobeto al zaude?
- Urduri dago/zaude?
- Haurrak nahi al du dieta egin?
- Zertarako nahi duzu umeak dieta egitea?
- Esango didazu atzo zer jan zenuen?

Jarraibideak

- Auskultatu egingo dut/zaitut.
- Haurrari dieta jarri beharrean, familiaren ohiturak aldatzea proposatzen dut.
- Komeni da janariak prestatzeko eta jateko ohiturak berrikustea.
- Zer lortu nahi duzu dietarekin?
- Komenigarria da haurrak kirola egitea.
- Ondo jateko, denetik eta modu orekatuan jan behar da.
- Saihestu itzazu/itzazue gozoki eta litxarreriak.

Tratamendua

- Botika hau emango dizut.

8.- Gaixotasun infekziosoak:

Txarranpina, elgorria.

- Pikor/garau gorriak atera zaizkio/zaizkit. Ez dakit txarranpina ala alergiaren bat den.

Zantzuak baieztatzeko galderak

- Non dauzka/dauzkazu pikorrak/garauak?
- Gorputz osoan dauzka/dauzkazu pikorrak?
- Azkura ematen diote/dizute?
- Eztarriko minik ere badauka/badaukazu?
- Beste inork izan al du horrelakorik etxean edo eskolan?
- Ezkatarik dauka/daukazu azalean?
- Ezer txarrik jan al du/duzu?
- Zer jan zenuen atzo?

Jarraibideak

- Azkura kentzeko oloa ona da.
- Komenigarria da atzazalak ondo moztea, azkura duenean minik ez hartzeko.

Tratamendua

- Azkura handia baldin badu/baduzu, hartu botika hau.



1.5 Edoskitzea

Erabiltzaileen ohiko galderak:

- Egun osoan dabil titia hartzen. Ez dakit normala den.
- Hilabete barru lanean hasi behar dut eta ez dakit noiz hasi biberioa ematen.
- Txupetea hartzen du, baina biberioa ez. Ez dakit zer egin.
- Biberioan ze esne ematea aholkatzen didazu?
- Katarroa dauka eta ia ez du ezer jaten.
- Soja-esnea ematea pentsatu dut. Ondo iruditzen zaizu?
- Titiak minduta dauzkat eta haurrak esnea hartzen duenean min ematen dit. Arrakalak direla uste dut.



Haurra kontrolatzeko galderak

- Titia ondo hartzen du?
- Biberioa hartzen du?
- Zenbatetik behin hartzen du?
- Zurekin egiten du lo?
- Txupetea hartzen du?
- Noiz hasi behar duzu lanean?
- Ba al dakizu zein den haurrari bularra emateko posizio egokia?

Jarraibideak

- Oso ondo ari da hazten.
- Bularra ematen diozun bitartean haurra katarro, beherako eta beste hainbat gaitzetatik babestuta egongo da, eta zure gorputza ere errazago etorriko da bere onera.
- Ez utzi lo hartzen biberioa ematen diozun bitartean.
- Lehen urtean ez erabili behi-esne edo soja-esnerik.
- Pertzentiletan batez bestekoa baino txikiago dago. Zerbait osagarria ematea komeni zaizu.
- Aurreko hilabetean irabazi zuen pisua ikusita, oraingoan oso pisu gutxi irabazi du. Zerbait arraroa nabaritu diozu?
- Biberioa eman aurretik, esnearen tenperatura begiratu behar duzu.
- Haurra besartean eduki behar da biberioa hartzen duen bitartean; bestela, kontrako eztatritik joan ahal izango zaio.
- Edoskitze-taldea astero elkartzten da, eta, zalantzarik baldin baduzu, bertan argitu dezakezu.
- Biberioa edo bularra eman ondoren, pixoihala aldatzeko ohitura hartu.
- Bi titietatik emaiozu esnea, lehenengo batetik eta ondoren bestetik.
- Badirudi bularra ez duela ondo hartzen. Biberioa ere ematen hastea komeni zaizu.
- Garbitu eta ondo lehortu titipuntak bai titia eman aurretik bai ondoren.
- Atera esne apur bat eta zabaldu titipuntetan.
- Titiak gogortuta baldin badauzkazu, oihal bero bat jar dezakezu gainean 10 minutuz.
- Krema bat ere emango dizut.
- Titiak egunero pixka batean eguzkitan edukitzea ere komeni da.

1.6 Elikadura

Lehen urte arte

Erabiltzaileen ohiko galderak:

- Noiz has daiteke barazkiak jaten?
- Glutenik gabeko zerealak ematen has naiteke?
- Ogia ematea ona al da?
- Jogurtak, noiz har ditzake?
- Arrain zuria hartzen has daiteke?
- Purea ez zaio asko gustatzen. Zati txikiak ematen hastea pentsatu dut.

Haurra kontrolatzeko galderak

- Zenbatetik behin hartzen du esnea?
- Ondo hartzen du bularra? Ondo hartzen du biberioia?
- Zenbatean behin hartzen du?
- Eskatu ahala ematen al diozu?
- Negar asko egiten du?

Jarraibideak

- Esnea bakarrik eman haurrak 4 hilabete betetzen dituen arte.
- Elikagaiak banaka sartu behar dira eta bost bat egun itxaron janari berriak eman arte.
- Jateko, koilara erabiltzen ohitu.
- 6 hilabete betetzen dituenean, fruta jaten has daiteke. Hasteko, laranja eta sagarra irabiatu.
- 6 hilabeterekin glutenik gabeko zerealak har ditzake, eta ondoren glutendunak jaten has daiteke.
- 6 hilabetetik aurrera barazki-pureak jan ditzake. Prestatu gatz eta oliorik gabe, eta irabiatzerakoan bota koilarakada bat olio gordin.
- 7 hilabete betetzen dituenean, barazki-pureari okela egosia edo plantan eginga bota ahaliko diozu.
- Pureak gero eta lodiagoa izan behar du. Haurra, 8 hilabete inguru dituenean, birrindu gabeko zati txikiak jateko gai izango da.
- 9 hilabete betetzen dituenean, arrain zuria bota dezakezu purean txikituta.
- Hasieran arraroa egingo zaio, baina pixkanaka hasiko da jaten. Garrantzitsua da egunero janaria eskaintzea, behartu gabe.
- Garrantzitsua da jateko momentua umearentzat atsegina izatea.
- 11 hilabete inguru dituenean, haurra lekaleak jaten has daiteke.
- Jogurtak ere jan ditzake, naturalak eta azukrerik gabekoak.

Lehen urtetik aurrera eta eskolaurrean

Erabiltzaileen ohiko galderak:

- Zenbat esneki hartu behar du egunean?
- Guk jaten duguna jan al dezake?
- Asko kostatzen zaio jatea. Bitaminaren bat eman beharko nioke?

Haurra kontrolatzeko galderak

- Ondo jaten du?
- Denetik jaten du?
- Etxeko guztiek elkarrekin bazkaldu edo afaltzen duzue?

Jarraibideak

- Jakiak txikituta mastekatzen/mamurtzen has daiteke.
- Haurrak elikagai gehienak jan ditzake, baina denetik jaten hasteko presarik ez duzue izan behar.
- Kontuz ibili fruitu lehorrekin, kontrako eztarrira joateko arriskua dago-eta.
- Gutxienez litro erdi esne hartu behar du egunean, baita jogurta edo beste esneki batzuk ere.
- Familiak egunero jaten duena jan dezake umeak ere.
- Otorduak errespetatzen saiatu, batez ere jatun txarra baldin bada.
- Saihestu gozokiak, litxarreriak eta otorduz kanpoko janariak.
- Garrantzitsua da jateko momentua umearentzat atsegina izatea.



Eskolara joateko adinean

Erabiltzaileen ohiko galderak:

- Ez du arrainik jan nahi, ezta frutarik ere.
- Ez du behar bezala gosaltzen. Zer eskain diezaioket?



Haurra kontrolatzeko galderak

- Ondo jaten du?
- Denetarik jaten du?
- Etxeko guztiek elkarrekin bazkaldu edo afaltzen al duzue?

Jarraibideak

- Elikadurak orekatua izan behar du, atsegina eta askotarikoa. Denetik jan behar da.
- Saihestu gozokiak, litxarrerriak eta otorduz kanpoko janariak.
- Edari freskagarriak oso noizean behin bakarrik har ditzala.
- Ez utzi otorduen artean jateko ohitura hartzen.
- Egunero honakoak jan behar ditu:
 - Esnea: litro-erdia edo litroa egunean, adinaren arabera.
 - Okela, arraina edo arrautzak.
 - Barazkiak edota fruta.

1.7 Hainbat azalpen

Agintera:

Mediku eta erizainek gaixoei sarritan azaltzen diete zerbait **NOLA** egin behar den, eta horretarako agintera erabiltzen da esaldi askotan.

Agindu horiek emateko, hainbat bide ditugu eta guztiak dira oso erabiliak:

AGINDUA NOLA	ADIBIDEAK
Agintera aditz nagusiarekin	Garbitu eskuak
Agintera aditz laguntzailearekin	Garbitu itzazu eskuak
“behar” erabilita	Eskuak garbitu behar dituzu
“Komenigarria da...” eta antzekoekin	Halakoetan komeni da eskuak garbitzea
“Garrantzitsua da...” eta antzekoekin	Oso garrantzitsua da eskuak garbitzea
“Premiazkoa da...” eta antzekoekin	Nahitaezkoa da eskuak garbitzea

“Behar” izan ezik, aginduak emateko forma guztiak (hala agintera nola “komenigarria da...”, “garrantzitsua da...”, etab.) esaldiaren hasieran kokatu ohi dira, bai ahoz bai idatziz.

Denborazkoak:

Agindu edo aholkuak askotan urratsez urrats eman behar ditugunez, denborazkoak maiz erabiltzen dira, eta batzuetan komeni da forma bat baino gehiago erabiltzea:

- **Aurrekotasuna** adierazteko: baino lehen(ago), aurretik, -(z)erakoan...
 “Haurra bainuontzira sartu AURRETIK, tenperatura begiratu”.
 “Haurra bainuontzira sartu BAINO LEHEN, tenperatura begiratu”.
 “Haurra bainuontzira SARTZERAKOAN, tenperatura begiratu”.
- **Gerokotasuna** adierazteko: eta gero (aditzekin), ondoren, ondoan, ostean, -takoan, -(e)nez gero...
 “Bizpahiru hilabete igaro ONDOREN, noduluak orbaintxo bat uzten du”.
 “Bizpahiru hilabete igaro OSTEAN, noduluak orbaintxo bat uzten du”.
- **Berehalakotasuna** adierazteko: bezain laster, eta berehala...
 “Sukar altua duela ikusi BEZAIN LASTER, eman botika”.
 “Sukar altua badu, BEREHALA eman botika”.
- **Aldiberekotasuna** adierazteko: -(e)nean, -n bitartean, -(t(z)ean, -(t(z)eaz batera...
 “Haurra mugitzen hasten DENEAN, ez utzi bakarrik leku altuetan”.
 “Haurra mugitzen ari DEN BITARTEAN, adi egon”.
- **Maiztasuna** adierazteko: -netan, -n bakoitzean, -n gehienetan, -n guztietan...
 “Sukarra izaten duen GUZTIETAN, kontsultara etorri edo deitu”.
 “Sukarra izaten duen BAKOITZEAN, kontsultara etorri edo deitu”.

Iritzi-adberbioak:

Iritzi-adberbioak hiztunaren iritzia edota jarrera adierazten duten adberbioak dira. Hona hemen ohikoenak:

1.- Ustea adierazten dutenak:

1.1. "Nire ustez"

Izena edo izenordaina noren kasuan deklinatu eta "ustez" partikula gehituz eratzen da:

- "Nire ustez, egokiena botikarik ez hartzea da".
- "Gure ustez, onena ezer ez jatea da".

1.2. "Nik uste"

Esapide hau "nik uste dut" perpausetik dator, baina, bukaeran kokatuta, ez du menpekorik behar:

- "Dieta jartzea egokiagoa da, nik uste".

1.3. "Nire iritziz"

Lehen aipatu dugun "nire ustez" kasuaren baliokidea da:

- "Nire iritziz, onena titia ematea da".
- "Zure iritziz, zer gertatu zaio?".

2.- Posibilitatea adierazten dutenak:

Erabat ziurra ez den zerbait adierazteko erabiltzen diren esapideak dira:

- "Agian orbanak ere aterako zaizkizu".
- "Igual sukarra asko igoko zaizu".
- "Beharbada, ikastolara ez joatea duzu onena".
- "Litekeena da orbanak ere ateratzea".
- "Gerta daiteke egoerak hobera egitea egun pare batean".
- "Baliteke sukarra desagertzea".

"Al" galderetan:

Galderak "al" galdetzailearekin edo galdetzailerik gabe egin daitezke, galderaren erantzuna BAI ala EZ denean.

"Al" galdegilea batez ere Gipuzkoan erabiltzen da, baina batuan hautazkoa da. Gida honetan hainbat galdera

"al" galdetzailearekin jarri ditugu eta beste hainbat galdetzailerik gabe:

- "Ondo jaten du?" edo "ondo jaten al du?".
- "Denetik jaten du?" edo "denetik jaten al du?".

2.- OINARRIZKO HIZTEGIA

Hainbat ohar

Hiztegitxo honetan ez daude sartuta Pediatrian erabiltzen diren hitz guztiak, baina bai erabiliak. Hala ere, ikusiko duzuen bezala, hiztegiaren amaieran zenbait orri zuri jarri ditugu, oharrak hartzeko, iradokizunak apuntatzeko, hitz berriak idazteko... Aurrera begira, hiztegitxo hau osatzeko eta aberasteko baliagarri izango direla uste dugu.

Hitzak aukeratzeko irizpide nagusia honakoa izan da: eguneroko lanean pediatrek nahiz Pediatriako erizainek askotan erabili behar izatea.

Kasu batzuetan, hitz beraren bi ordain agertzen dira, eta horiek bereizteko barra etzana (" / ") erabili dugu. Hainbat kasutan sinonimo bat baino gehiago erabili ditugu, erabiltzaileak bere euskalkira gehien egokitzen dena hauta dezan.

Hitzen itzulpenak begiratzeko orduan, gogoratu euskarazko ordaina mugagabea agertzen dela eta esaldiak egiteko izena mugatu egin behar dela; hau da, amaierako -a erantsi behar da. Dena den, lehen taulan zerbitzuen izenak jarri ditugu, eta, errotulazioa beti mugatuta ematen denez, atal horretako hitzak mugaturik eman ditugu.



2.1 Zerbitzuak (errotulazioa)

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
aparato digestivo	aparatu digestiboa/digestio-aparatua	ginecólogo, -a	ginekologoa
área de atención al paciente	pazienteen(tzako) arreta-zerbitzua/pazienteen(tzako) atentzio-zerbitzua	matrona	emagina
asistencia a domicilio	etxeko asistentzia	medicina general	medikuntza orokorra
atención especializada	arreta espezializatua/atentzio espezializatua	médico de familia	familia-medikua
atención primaria	lehen mailako arreta/lehen mailako atentzioa	odontología	odontologia
atención urgente	arreta urgentea/ atentzio urgentea	oftalmología	oftalmologia
botiquín	botikina	optometrista	optometrista
cardiología	kardiologia	otorrinolaringología (ORL)	otorrinolaringologia (ORL)
cirugía	kirurgia	pediatría	pediatría
cura	sendaketa	psicólogo	psikologoa
dermatología	dermatologia	psiquiatra	psikiatra
endocrinología	endokrinologia	psiquiatría de adultos	helduen psikiatria
enfermería	erizaintza (lanbidea); erizaindegia (lekua)	psiquiatría infantil y juvenil	haur eta gazteen psikiatria
ginecología	ginekologia	radiología	erradiologia
		recepción	harrera
		terapia ocupacional	terapia okupazionala
		tocoginecología	tokoginekologia
		toxicomanías	toxikomaniak
		trastornos alimentarios	jatearen nahasmenduak
		traumatología	traumatologia
		urología	urologia

2.2 Gaixotasunak (Nazioarteko sailkapenaren arabera)

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
accidente	istripu	enfermedad del sistema central	nerbio-sistema zentralaren gaixotasun
alteración cromosómica	alterazio kromosomiko	enfermedad del sistema digestivo	digestio-sistemaren gaixotasun
caída	eroriko	enfermedad del sistema genitourinario	sistema genitourinarioaren gaixotasun
desorden mental	buruko nahasmendu	enfermedad del sistema inmunológico	sistema immunologikoaren gaixotasun
efecto secundario	bigarren mailako eragin	enfermedad del sistema respiratorio	arnas sistemaren gaixotasun
enfermedad congénita	sortzetiko gaixotasun	enfermedad endocrina	gaixotasun endokrino
enfermedad de la piel	azaleko gaixotasun	enfermedad infecciosa	gaixotasun infekzioso
enfermedad de la sangre	odoleko gaixotasun	golpe	kolpe
enfermedad de los sentidos	zentzuen gaixotasun	herida	zauri
enfermedad del aparato locomotor	lokomozio-aparatuaren gaixotasun	intoxicación	intoxikazio/pozoitze
enfermedad del embarazo	haurdunaldiko gaixotasun	lesión	lesio
enfermedad del feto	fetuaaren gaixotasun	malformación	malformazio
enfermedad del parto	erditzeko gaixotasun	neoplasma	neoplasma
enfermedad del puerperio	erditze ondoko gaixotasun/erdiberriaroko gaixotasun		
enfermedad del recién nacido	jaioberriaren gaixotasun		
enfermedad del sistema circulatorio	bihotzeko eta zirkulazio sistemaren gaixotasun		

2.3 Ohiko gaixotasunak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
ahogo	itolarri/itotasun/itobehar/itoaldi	infección	infekzio
astenia	astenia	inflamación	hantura
bocio	bozio	insuficiencia cardíaca	bihotz-gutxiegitasun
bronquitis	bronkitis	insuficiencia renal	giltzurrun-gutxiegitasun
bulimia	bulimia	insuficiencia respiratoria	arnas gutxiegitasun
cáncer	minbizi	intoxicación	intoxikazio/pozoitze
catarata	katarata/gandu/begi-lauso	laringitis	laringitis
cistitis	zistitis	leucemia	leuzemia
cólico	koliko	meningitis	meningitis
colitis	kolitis	metástasis	metastasi
conjuntivitis	konjuntibitis	meteorismo	meteorismo
contusión	ubel/kontusio	migraña	migraina
convulsión	konbultsio/dardara/dardarizo	nefritis	nefritis
depresión	depresio	neumonía	pneumonia/biriketako
dermatitis	dermatitis	obesidad	obesitate
desnutrición	desnutrizio	osteoporosis	osteoporosi
diabetes	diabetes	otitis	otitis
diarrea	beherako/beheranzko/sabeleko	pancreatitis	pankreatitis
disfagia	disfagia	peritonitis	peritonitis
embolia	enbolia	psoriasis	psoriasi
enfermedad infecciosa	gaixotasun infekzioso	quemadura	erredura/erre
epilepsia	epilepsia	quiste	kiste
esguince	zaintiratu/bihurdura/bihurritu	resfriado	hotzeri/burutik beherako
estreñimiento	idorreri	ronquera	erlats/marranta
estrés	estres	rubéola	errubeola
faringitis	faringitis	sarampión	elgorri/txarranpin
fractura	haustura	sinusitis	sinusitis
gastritis	gastritis	soplo	murmurio
gripe	gripe	sordera	gortasun/gorreri
halitosis	halitosis	tétanos	tetanos
hematoma	hematoma	torcedura	bihurritu/bihurdura
hemorragia	hemorragia/odoljario	tortícolis	tortikolis
hemorroide	hemorroide	traumatismo	traumatismo
hepatitis	hepatitis	trombosis	tronbosi
herpes	herpes	tumor	tumore
hipertensión	hipertentsio	úlceras	ultzera
hongos	onddo(ak)	varicela	barizela/astanafarreri
ictericia	ikterizia/horitasun/min hori	vértigo	bertigo
infarto	infartu/bihotzeko		

2.4 Gorputz-atalak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
antebrazo	besaurre	mano	esku
axila	besape/galtzarbe	mejilla	masail/matrail
barbilla	kokots	muela	hagin
boca	aho	muñeca	eskumutur/eskutur
brazo	beso	muslo	izter
cabello	ile/bilo	nalga	ipurmasail/ipurmami
cabeza	buru	nariz	sudur
cadera	aldaka/mokor	nuca	garondo
campanilla	aho-gingil/ubula	ojo	begi
cara	aurpegi	ombligo	zilbor/zil
ceja	bekain	oreja	belarri
cintura	gerri	paladar	ahosabai
codo	ukondo	pecho	bular
colmillo	letagin/betortz	pelo	ile/bilo
columna vertebral	bizkarrezur	pene	zakil
cuello	lepo/sama/idun	pestaña	betile
cuerda vocal	ahots-korda	pezón	titiburu/titimutur
culo	ipurdi	pie	oin
dedo	hatz/atzamar/eri/ behatz(oinekoa)	pierna	hanka/berna
diente	hortz/hagin	puño	ukabil
encia	hortzoi/oi	rodilla	belaun
espalda	bizkar	sobaco	besape/galtzarbe
frente	bekoki/kopeta	talón	orpo
garganta	eztarri/zintzur	testículo	barrabil
hombro	sorbalda/lepo	tobillo	orkatila
hueso	hezur	tórax	torax
labio	ezpain	tripa	tripa/sabel
lengua	mihi/mingain/min	uña	azazkal/azkazal/atzazal
mandíbula	masailezur/matrailleur	viscera	errai
		vulva	bulba/alu

2.5 Gorputz-organoak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
ano	uzki	laringe	laringe
bazo	bare	ovario	obario/obulutegi
cerebro	garun/burmuin	páncreas	pankrea/are
corazón	bihotz	pulmón	birika
esófago	esofago/hestegorri	recto	ipurteste/ondeste
estómago	urdail/sabel	riñón	giltzurrun
hígado	gibel	traquea	trakea/zintzur-heste
intestino	heste	útero	umetoki/utero
intestino delgado	heste mehe	vagina	bagina
intestino grueso	heste lodi	vejiga	maskuri/puxika
intestino irritable	heste suminkor		

2.6 Eskeletoa

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
cadera	aldaka/mokor	omoplato	omoplato/sorbalda-hezur
clavícula	klabikula/lepauztai	pelvis	pelbis
costilla	saihets-hezur	peroné	perone
esternón	esternoi/bularrezur	pubis	pubis
fémur	femur/izterrezur	rótula	errotula/belaunezur/belaunburu
húmero	humero/besahezur	tibia	tibia/berna-hezur
mandíbula	masailezur/matrailezur	vértebra	orno

2.7 Probak/analisiak/ebakuntzak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
biopsia	biopsia	mamografía	mamografia
cesárea	zesarea	operación	operazio/ebakuntza
colonoscopia	kolonoskopia	prueba cutánea	larruazaleko proba
cura	sendaketa	prueba de alergia	alergia-proba
ecografía	ekografia	prueba de esfuerzo	esfortzu-proba
electrocardiograma	elektrokardiograma	prueba del azúcar	azukrearen proba
endoscopia	endoskopia	punción	puntzio
escáner	eskaner	radiografía	erradiografia
espirometría	espirometria	raspado	arraspatze
exploración	miaketa	resonancia magnética	erresonantzia magnetiko
extracción de sangre	odol-ateratze	sutura	jostura
gastroskopia	gastroskopia	tomografía	tomografia
impedanciometría	inpediantziometria	transfusión	transfusio
inyectable	injektagarri	trasplante	transplante
laparoscopia	laparoscopia		

2.8 Elikagaiak

GAZTELANIAZ		EUSKARAZ	
aceite	olio	membrillo	irasagar
aceituna	oliba	pan	ogi
albaricoque	albertxiko/abrikot	pera	udare/madari/txermen
alcachofa	orburu	pescado	arrain
alubia	babarrun/indaba	pescado azul	arrain urdin
berza	aza	pescado blanco	arrain zuri
caballo (carne)	zaldiki	piña	anana
carne	okela/haragi	plátano	banana
cerdo (carne)	txerriki	pollo	oilasko
cereal	zereal/labore	puerro	porru
cereza	gerezi	sal	gatz
ciruela	aran/okaran	ternera (carne)	txahalki
clara (de huevo)	zuringo	tostada (pan)	ogi txigortu
coliflor	azalore	uva	mahats
espárrago	zainzuri	vaca (carne)	behiki
filete	xerra	vaina	leka
fresa	marrubi/mailuki	verdura	barazki
guisante	ilar	vinagre	ozpin
haba	baba	yema (de huevo)	gorringo
lenteja	dilista	zanahoria	azenario
manzana	sagar		

3.- HIZTEGI ESPEZIFIKOA

3.1 Laneko ohiko hiztegia


GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
agudo	akutu	golosina	gozoki/litxarrerria
alimento	elikagai	grano (de la piel)	pikor/garau
ayunas (en)	baraurik	grave	larri
bañera	bainuontzi	guardería	hautzaindegi
boca abajo	ahoz behera/ahuspez	hemorragia	odoljario
boca arriba	ahoz gora/aratinik	hipo	zotin
cabezonada	kasketa	informe	txosten
calendario	egutegi	inhalación	inhalazio
cardenal	ubeldura/ubelune/beltzune	inicio	hasiera
causa	arrazoi/zio	intoxicación	intoxikazio
cicatriz	orbain	involuntario	nahi gabeko/oharkabeko
cita	hitzordu/txanda/ordu	inyectable	injektagarri
colmillo	letagin/betortz	jeringuilla	xiringa
comportamiento	portaera/jokabide	lactancia (acción)	edoskitze
común	arrunt	lactancia (periodo)	edoskitzaro
contagiar	kutsatu	leche	esne
contraer (músculos)	uzkurtu	leche de continuación	jarraipeneko esne
contraer (una enfermedad)	kutsatu/erantsi/bildu/harrapatu	leche de inicio	hasierako esne
cucharada	koilarakada	leche de proteína de soja	soja-proteinazko esne
cuna	sehaska/kuma	leche hidrolizada	esne hidrolizatu
cura	sendaketa	leche sin lactosa	laktosarik gabeko esne
diente	hortz/hagin	lesión	lesio
duración	iraupen	levadura de cerveza	garagar-legamia
efecto	eragin	leve	arin
ejercicio	ariketa	liendre	bartz
encia	hortzoi/oi	lombriz	zizare
enfermera, -o	erizain	malestar	ondoez/ezinegon
enfermo	gaixo	mancha	orban
escama	ezkata	masticar	mastekatu/mamurtu
esputo	karkaxa	mear/orinar	pixa egin/txiza egin
exploración	miaketa/azterketa	medicamento	sendagai/botika/medikamentu
extensor	hedatzaile	médico (sustantivo)	mediku/sendagile
extrahospitalaria, -o	ospitalaz kanpoko	médica, -o (adjetivo)	mediko
fecha	data	miedo	beldur
fiebre	sukar/kalentura	mirada	begirada
fortuito	ustekabeko	moco	muki
frenillo (de la lengua)	mihi-hari/mihipeko/mihiazpiko	motivo	arrazoi/zio





GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
muestra	lagin	saliva	listu/txistu/tu
náusea	goragale/botalarri/botagura	seguridad social	gizarte segurantz
oblicuamente	saiheska	sollozo	negar-zotin
OMS (Organización Mundial de la Salud)	OME (Osasunaren Mundu Erakundea)	suceso	gertaera
ordinario	ohiko	sutura	jostura
orinal	pixontzi/txizontzi	temblor	dardara
paciente	paziente	teta	titi
pañal	pixoihal	tragar	irentsi
peca	orezta	ungüento	ukendu
pecho	bular	uña	azazkal/azkazal/atzazal
peine	orrazi	urgencia	larrialdi/urgentzia
piojo	zorri	urgente	urgente
preferente	lehentasunezko	vacuna	txerto
prematureo	goiztiar	vacunación	txertaketa
pronóstico	pronostiko/iragarpen	vapor	lurrun
provisional	behin-behineko	vía oral (por)	aho bidez(ko)
rayos X	X izpiak	vía respiratoria	arnasbide
resbalar	irristatu/lapraz egin/labaindu	vía urinaria	gernubide
ronquido	zurrunga	volante	bolante/paper/txartel
rotura de fibras	zuntz-haustura	vómito	gonbito/oka




3.2 Gorputz-atalak






3.3 Gorputz-organoak



3.4 Eskeletoa



4.- MATERIAL LAGUNGARRIA

4.1 Liburuak

- Gramatika bat: ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi: **Euskal gramatika osoa**, Didaktiker, Bilbo, 2000.
- IVA Pek oso liburu on eta interesgarriak dauzka: **Zalantza-dantza, Argiro idazteko proposamenak eta ariketak, Galdezka, IVA Peko estilo-iburua...**

4.2 Internet

- Lanhitz: http://www.euskara.euskadi.net/r59-14154/eu/contenidos/informacion/agiri_ereduen_bankua/eu_00212/agiri_ereduen_bankua.html
- Agiriak.net: <http://www.agiriak.net/>
- Sareko Euskal Gramatika: <http://www.ehu.es/seg/init.html>

4.3 Hiztegiak

- Elhuyar hiztegi elebiduna (hiztegi orokorra): <http://www.elhuyar.org/>
- 3000 hiztegia (hiztegi orokorra): http://www1.euskadi.net/hizt_3000/
- Euskalterm (banku terminologikoa): <http://www1.euskadi.net/euskalterm>
- Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>
- Sinonimoen hiztegia (Adorez): http://www1.euskadi.net/hizt_sinon/indice_e.htm
- Hiztegi asko batera: <http://www.hiztegia.net/>
- Administrazio sanitarioko hiztegia (Osakidetza).
- Osatuz, monografikoa: Hiztegi Zalantzak Argitzen (Osakidetza).

4.4 Kontsulta-guneak

- IVA Pen "Duda-muda": <http://www.ivap.org/dudamuda/dudamuda.htm>
- Euskaltzaindiaren arauak: <http://www.euskaltzaindia.net/arauak>
- Elhuyar Fundazioa: <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hizkuntza-kontsulta>
- Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatría Elkarte: <http://www.avpap.org/> euskara-gaztelania eskuliburua.

Oharrak

